



TXIKI!

2024ko urria 226. zenbakia



MUNDUA JATEKO GOGOZ

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	BANAKIXAN	10
		BANAKIXALA	
IKASLEEKIN	4-5	DENBORAPASAK	11
BERRIKETAN			
IKASTETXEETAKO	6-7	LEHIAKETA	13
BERRIAK			
SUKAL-SALTSAN	8	ZER IRAKURRI	
		BITXIKERIAK	14
GURE NAGUSIEKIN		IPUINA	15
BERBETAN	9	ZU BAI MARGOLARI ...	16

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Ring, ring... jotzen du telefonoak.
- 12-12-12 al da?
- Ez, hau 21-21-21 da.
- A barkatu, ezkerreko eskuz markatu dut.



Seme batek esaten dio aitari:

- Aita, handia izatean zu bezalakoa izan nahi dut!

Eta aitak esaten dio:

-Ni bezain azkarra izateko?

-Ez, ni bezalako semea edukitzeko.

- Nola duzu izena?
- Batzuek deitzen didate TEO eta besteek DORO.
- A, orduan TEODORO izango duzu izena?
- Ez, DOROTEO.



- 00-00-01 telefono zenbakia al da?

- Bai.

- Kontuz!, laster telefono zenbakirik gabe geldituko zara!

Gizon bat hain zen txikia, espaloian esertzen zenean hankak zintzilik geratzen baizitzaizkion.





Euren saltsan

Aldatze ikastetxeko 3. mailako ikasleak dira Martin Gastesi, Paula Parada, Bruno Martinez eta Lucia Rodriguez. Jolas orduan harrapatu ditugu, hamaiketako jateko unerik aproposenean. Bikain datorkigu hori, eurekin elikadurari buruz jardun dugu-eta.

Daukaten poztasun eta hitz-jarioarekin mundua jango du laukoteak. Egia esan, ia denetik jaten dute laurek, baina jaki kuttun batzuk dituzten moduan, beste batzuk ez dituzte horren gustoko. Sukaldean asko ez dira aritzen, baina imajinazio asko dute jakiak konbinatzeko orduan eta nahasketa arraroak egiten dituzte batzuetan. Hori bai, orokorrean nahiko osasuntsu jaten dutela aitortu digute. Aingeru aurpegi horiekin, sinestuko diegu, ezta?

BIDEOA
YOUTUBEN



OI-DA batean

- 1- Zer jango zenuke egunero?
- 2- Zer ez zenuke jango inoiz?
- 3- Pizza ala hanburgesa?
- 4- Postre bat?
- 5- Gosari bat?
- 6- Etxetik kanpo zer gustatzen zaizu jatea?
- 7- Gazia ala gozoa?
- 8- Okela ala arraina?
- 9- Freskagarriak ala ura?

Elkarrizketa dibertigarri hau ...kitto! Euskara Elkartearen Tik Tok kontuan duzue!



LUCIA RODRIGUEZ

- 1- Sanjakoboa.
- 2- Brokolia.
- 3- Hanburgesa.
- 4- Yogurra marrubiekin.
- 5- Erroskilak Colacaoarekin.
- 6- Nuguett-ak eta pizza.
- 7- Gozoa.
- 8- Okela.
- 9- Ura.



BRUNO MARTINEZ

- 1- Pizza.
- 2- Tomatea.
- 3- Hanburgesa.
- 4- Izoikia.
- 5- Tostadak.
- 6- Makarroiak.
- 7- Gozoa.
- 8- Okela.
- 9- Freskagarriak.



PAULA PARADA

- 1- Espagetiak.
- 2- Arraina.
- 3- Pizza.
- 4- Flana.
- 5- Gailetak.
- 6- Denetik.
- 7- Gozoa.
- 8- Okela.
- 9- Freskagarriak.



MARTIN GASTESI

- 1- Plater konbinatua.
- 2- Pura.
- 3- Pizza.
- 4- Marrubiak.
- 5- Esnea.
- 6- Makarroiak.
- 7- Gozoa.
- 8- Okela.
- 9- Freskagarriak.



ITURBURU

Aurten ere, Iturburuko bigarren mailakoak Arritxulora joan gara. Urriaren 7an eta 8an izan da hori, eta noski, gaua etxetik kanpo pasatu behar izan genuen. Baina etxeok gogoratu bagenituen ere, ez genuen haien falta igartzeko tarterik izan. Ekintza pila bat izan genituen, horien artean, mendi buelta eta udazkeneko fruituen bilketa. Herri kirolak eta eskalada ere egin genituen, zazpian gauean, disko festa izan genuen eta primeran ibili ginen. Janaria bereziki ona izan da eta ekintzekin gastatutako energia guztia berreskuratzen genuen primerako jatordu haiekin. Hurrengo urteetan ere, beste talde batzuk joatea espero dugu. Hau da hau, ikasturtea ondo hastea!



SAN ANDRES

Urriaren 4an, San Andres Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasle guztiak Arratera joan ginen. Lehenengo ziklokoak autobusez igo ziren eta 2. eta 3. ziklokoak, berriz, Azitainetik oinez. Eguraldi ona izan genuen: goizean, igotzeko, nahiko fresko; eta bertan egoteko epeltxo. Arraten, taldeko jolasak antolatu genituen: sokatira, txingak, lokotz bilketa, txapel jaurtiketa, saltoka lasterketa, uztaiak pasa... Primeran pasa genuen! Ondoren, bazkaldu, jolastu eta berriro oinez bueltatu ginen. Egun zoragarria, benetan!

LA SALLE

La Salle Isasi ikastetxean ikasturte hasiera primerakoa izan da. Udan pasatako hamaika abenturak elkarri kontatu ondoren, gela, maila eta lagun berriak ezagutzen aritu gara topera. Horretarako, LHko 1., 2., 5. eta 6. mailako ikasleak Arratera txangoa egin genuen, bertan egun zoragarria pasatzeko elkarrekin jolasean. Gainera, LH 3., 4. eta 6. mailakoak zinemako artista bihurtu ziren egun batez Donostiako Zinemaldira bisita egin eta bertako alfombra gorria zapaldu ondoren. Hori gutxi balitz, gure gelak animaliz betetako oihan bihurtu dira, gure patioa hobetzeko ideiak aurkeztu ditugu, kolore guztietako emozioak lantzen ibili gara eta baita Untzagako plazan besarkadak banatzen ere. Ikasturteko errepidean aurrera jarraitzeko prest gaude!





AMAÑA

Irailaren 19 an, osteguna, Amaña ikastetxeko lehen hezkuntzako ikasleak Arratera joan ginen. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak autobusez igo ginen, gainerakoak oinez. Arraten oso ondo pasa genuen: parkean, labirintoan, talde-jolasak egiten, bazkari goxoa jaten... Arratsaldean autobusak etorri ziren eta lehenengo mailatik seigarren mailara artekoak autobusez itzuli ginen auzora, etxera joateko. Egun zoragarria izan zen!



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunak!! Hemen gaude berriro ikasturte berria gogoz hasteko prest! Jada izan ditugu ekintza batzuk, besteak beste, 3. zikloko ikasleek, iraileko azken astean, erronka kooperatiboak egin zituzten Gorputz Hezkuntzako saioetan. Primeran pasatu zuten! Urriaren 15ean, HH3-4-5eko ikasleak Coliseora joan ziren "Arratoi pirata" filma ikustera. Ikasturtean zehar egingo ditugun ekintza, irteera eta abar antolatzen ari gara. Joango gara zuei poliki-poliki kontatzen!

URKIZU

Aurtengo ikasturtea ere primeran hasi dugu! Irailaren 27an lehen hezkuntza guztia Arratera igo ginen eta bertan pasa genuen eguna. Goizean zehar hainbat jolas egin genituen eta arratsaldean denbora libreaz gozatu genuen. Bestalde, urriaren 7, 8 eta 9an, Amaia Larraza Espainiako selekzioarekin jokatu duen gaztea etorri zen LH3, 4, 5 eta 6ko ikasleei softball-eko eta beisball-eko ikastaroak ematera. Ikasleek, jolasen inguruan ikasteaz gain, primeran pasatu zuten.



ALDATZE

Irailaren 19an ikastetxeko 1., 2. eta 3. mailetako ikasleak Arratera igo ginen txangoan, urtero ikasturteari hasiera emateko egiten dugun bezala. Eguraldia lagun izan genuen eta asko disfrutatu genuen gora eta behera jolasean. Gurutzearen inguruan bueltaka, parkeko tirolina gainean, zelaian antxitxiketan, naturarekin kontaktuan... Zeinen ondo ibili ginen! Arrateko ama bisitatu genuen, eta ikasturte honetan ere zain gaitzala eskatu genion. Egun biribila izan zen!



Brokoli-tortilla biribilkia

4 lagunentzat



OSAGAIAK :

- 8 arrautza
- 30 g irin
- 500 g brokoli
- 50 g gazta birrindu
- 100 g gazta-krema
- 100 g york urdaiazpikoa
- Oliba-olioa
- Gatza

NOLA EGIN:

- 1.- Egosi brokolia 8 minutuz kazola batean, ur askorekin eta gatz apur batekin. Garbitu brokolia urarekin gatz kentzeko.
- 2.- Irabiatu arrautzak. Gehitu irina poliki-poliki eta eragin. Gatza eta piperbeltza bota eta nahastu. Erantsi gazta birrindua eta brokolia. Nahastu ondo brokolia xehatu arte.
- 3.- Estali erretilu bat labeko paperarekin eta bota nahasketa gainera. Sartu aurrez berotutako labean 200 gradu zentigradutan 10 minutuz
- 4.- Jarri tortilla trapu garbi baten gainean eta kendu labeko papera. Igurtzi



gainazala gazta kremarekin eta estali urdaiazpikoarekin. Biribilkatu tortilla trapuarekin eta pasatu plater edo erretilu batera.

- 5.- Utzi hozkailuan ordubetez, tipulin pixkat jarri apaintzeko eta horra hor biribilki gozo-gozoa!

Garbantzu frijituak txorizoarekin

TI-TA



Moztu tipula xerratan edo oso zati txikietan, nahierara. Frijitu oliba-olio txorrotadatxo batekin, ongi erregosi arte. Minutu pare bat daramatenean, bota gatza eta piperbeltz oso txikia, azkarrago izerditu daitezten. Moztu txorizo xerrak eta, ondoren, lau zatitan guraize batzuekin. Bota txorizoa zartagineara tipularekin batera eta bi minututan frijitu bere olio eta zukuarekin. Garbantzuak ondo lehortu eta gero zartaginean gehitu, eta eman buelta batzuk guztiari, beste minutu pare batez, zaporea ondo har dezan.



Amama Mari Carmen eta Maren biloba elkartu ditugu San Andres ikastetxean. Bertan ikasten dihardu Marenek, 6. mailan. Aurten, gaztetxoek aitzitxa edo amamari elkarrizketa egin beharrean, Txikitto!-k egingo die elkarrizketa biei eta galdera berei erantzun beharko diete biek.

Zenbat urte dituzu?

Mari C.: 71

Maren: 11

Non jaio zinen?

Biak: Eibarren

Zer izan nahi zenuen/duzu nagusitan?

MC: Sengilea.

M: Fisioterapeuta.

Zer egiten duzu asteburuetan?

MC: Mendira joan.

M: Lagunekin irten.

Zer ikusten duzu telebistan?

MC: Albistegiak eta txaskarri-lloak.

M: Clan eta Disney Channel.

Zer entzuten duzu irratian?

MC: Radio Euskadi eta Arrate irratia.

M: Ez dut irratirik entzuten.

Zein musika gustatzen zaizu?

MC: Musika klasikoa.

M: Reggaettoa, Bulego, Aitana...

Abesti bat?

MC: Salbadorren heriotza.

M: Dos extraños (Aitana).

Musika talde bat?

MC: Ez naiz talde zalea.

M: Bulego.

Zein duzu jatekorik gustokoena?

MC: Odolostea.

M: Txuleta eta izozkiak.

Mari Carmen, ba al dakizu "influencer" izatea zer den?

Gustatzen ez zaidan gauza bat da. Euren bizitza erakusten dute baina ez da errealia, eta horrek kalte handia eragiten die gaztetxo askori.

Maren, ba al dakizu taba-jolasa zer den?

Taula batekin jolastea? (Arkumeen hezurtxo txiki batzuekin egiten zen jolasa)

Dirutza irabazi duzu. Zer da egingo zenukeen lehenengo gauza?

MC: Etxekoen artean banandu eta gainerakoa niretzat, lasai bizitzeko.

M: Bidaiatu, Londresera eta New Yorkera.

Pelikula bat?

MC: Pretty woman.

M: Padre no hay más que uno 4.

Jolas bat?

MC: Txingorgaina.

M: Vampiro, baloiarekin egiten den jolas bat.

Zer kenduko zenuke gaur egungo gizartetik? Eta zer gehituko?

MC: Kenduko nuke pertsonen arteko lehiakortasuna, lasaiago biziko ginatete-eta. Gehituko nituzke berdintasuna eta jendearekiko errespetua, oso galduta dago-eta.

M: Kendu nituzke gerrak eta tabakoa, eta gehitu kaletik lasai ibiltzea.

Jairik gustokoena?

MC: San Blas eguna.

M: San Juanak.

Zer gosaltzen duzu?

MC: Tostada bat urdaiazpiko eta ahuakatearekin eta kafesnea.

M: Kolakaoa eta tostada bat urdaiazpikoa eta olioarekin.

Zein hiru gauza eramango zenituzke irla desertu batera?

MC: Liburu bat, sodokuak eta fruta.

M: Mugikorra, ura eta txokolatea.



BAÑAKIXAN BAÑAKIXALA



Aries

martxoak 21-apirilak 20

Jakin eta ez egin? Hori bai "pekatumortala"! Euskaraz baldin badakizu, zergatik ez duzu egiten? Ziur nago kasu egingo didazula, eta oso oso pozik jarriko naiz.



Leo

uztailak 21-abuztuak 20

Hurrengo asteetan zortea emango dizun kolorea gorria izango da, zenbakia 7 eta animalia jirafa. Kirolarekin zerikusia duen edozerrek ere zortea ekarriko dizu.



Sagittarius

azaroak 21-abenduak 20

Kirola egiten hasi zarenetik hobeto sentitzen zara, ezta? Kasu gehiago egin beharko zenieke gurasoei, zuretzako onena besterik ez dute nahi-eta. Segi horrela!



Taurus

apirilak 21-maiatzak 20

Ikasturte berrian aurrerapauso handiak egingo dituzu: etxekolanak egunero, klasean adi egon, gelan txintxo portatu... Zorionak!



Virgo

abuztuak 21-irailak 20

Datozen asteotan gorputzak osasuntsu jatea eskatuko dizu. Bazen ordua! Ezin daiteke egunero horrenbeste litxarrerri jan. Porrusalda eta arrain pixkatekin hasi...



Capricornus

abenduak 21-urtarrilak 20

Aldamenekoek oso ondo pasatuko dute zurekin, erdigunean sentituko zara, gustora... Baina kontuz, lider-sentsazio horrek ez zaitzala harrotu eta tontotu, entzun?



Gemini

maiatzak 21-ekainak 20

Arropa-garbigailua lurreko baldosa dela zeinek esan dizu? Atetxo biribil hori ikusten duzu? Beno, ba zabaldu eta sartu arropa barruan. Hurrengo pausoa martxan jartzen ikastea.



Libra

irailak 21-urriak 20

Kontuz! Marra gorririk ez pasatu. Jakin badakizu lagunak zaindu egin behar direla, beraz, badakizu zuk inork baino hobeto zer egin behar duzun... edo zer ez.



Aquarius

urtarrilak 21-otsailak 20

Noiztik ez dituzu aitxitxa edo amama bisitatu? Zure zain daude aspaldian. Aprobetxatu denbora librea haiek bisitatzeko, bihotzez eskertuko dizue-eta.



Cancer

ekainak 21-uztailak 20

Inguruko baten batek ez dizu begia gainetik kentzen. Zein ote? Hurrengo hilabetean baduzu lana, ikerlari fin bihurtuko zara. Baina disimuluan, entzun?



Scorpius

urriak 21-azaroak 20

Noizko atzazkalak moztearena? Une honetan, gitarra-jotzaile bikaina izan zaitzke! Datozen asteotan zorteko zenbakia 3, kolorea beltza eta animalia astoa.



Piscis

otsailak 21-martxoak 20

Albiste pozgarria jasoko duzu lagun baten aldetik. Ez sentitu enbidiarik eta zoriondu ezazu behar den bezala, zuri ere iritsiko zaizu zurea-eta.




HIZKI-ZOPA

OGIBIDEAK

A	R	T	Z	A	I	N	A	B	O	S	A	P	P	A	O
E	W	A	N	O	E	R	S	Z	H	A	T	A	A	X	I
C	D	S	K	S	T	N	D	R	C	K	K	N	A	A	A
H	C	A	O	F	Z	C	O	H	M	P	A	T	T	B	A
D	D	M	H	X	B	H	D	H	K	E	O	A	A	N	A
S	H	S	D	Z	B	C	H	D	K	A	E	A	T	A	A
A	D	T	D	S	T	C	N	H	R	K	P	A	T	A	A
K	C	R	M	E	Z	H	O	H	K	H	K	A	T	A	A
K	A	D	A	S	T	B	C	H	R	K	P	A	T	A	A
A	D	M	H	X	B	H	O	H	K	H	K	A	T	A	A
I	S	T	D	S	T	C	N	H	R	K	P	A	T	A	A
K	C	R	M	E	Z	H	O	H	K	H	K	A	T	A	A
A	D	M	H	X	B	H	O	H	K	H	K	A	T	A	A
E	W	A	N	O	E	R	S	Z	H	A	T	A	A	X	I
A	R	T	Z	A	I	N	A	B	O	S	A	P	P	A	O

- BESLARIA
- ARTZAINA
- GENDARIA
- MEDIKUA
- TXISTULARIA
- ANDERENOA
- ATEZAINA
- FUTBOLARIA
- SUKALDARIA

LABIRINTOA





JEROGLIFIKOA

7 - z
+ 7

zazazabili zenuz gorbitze
kot



ZAPIA



- T nolakoan arkiten?

ERRAZI

SEI DESBERDINTASUNAK





LEHIAKETA

7 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **AZAROAK 8** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa EDER CORDON, txapeldun!
Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako! ZORIONAK!

**Bisita** 6 urtetik aurrera

Axerikumea bakarrik geratzen da gordelekuan, eta amak atea inori ez irekitzeko esan arren, bisita harrigarri bati sartzen uzten dio: Isiltasunari. Mesfidantzaz eta beldurrez betetako une batzuen ondoren, dantzarako musikarik behar ez dela ikasiko du gonbidatuarekin batera, nahikoa da bihotzaren taupadak markatzen duten erritmoei jarraitzea. Edo lasaitasuna eta sosegua behar direla geure pentsamenduak entzuteko.

**Non begia, han egia** 8 urtetik aurrera

Tomasek daltonismoa du. Familiako bazkari batean, gainontzeko kideek mundua nola ikusten duten galdetzen dio bere buruari. Irudien bidez, mahaira eseritako pertsonaia bakoitzak momentuko bere ikuspegia erakutsiko du. Inguruari nola begiratzen zaion, hori da kontua! Hona liburu koloretsu bat, guztiok jantzita daramatzagun "betaurreko" ikusezinak deskubritzeko.

**Hondoratua** 10 urtetik aurrera

Greg Heffleyk eta bere familiak kanpineko bidaia bat egiten dutenean, munduko abenturarik onenerako prestatzen dira. Baina planak ez dira aurreikusi bezala ateratzen, autokarabanetarako aparkaleku bat ez baita inola ere paradisu bat... Bat-batean, zerua euritan lehertzen da, eta Heffleytarrek galdera bat egiten diete beren buruari: ba ote dute oporrak salbatzeko aukerarik, edo hondoratuta daude?

**BITXIKERIAK**

Krokodilo helduak gai dira hiru urtez jan gabe egoteko; energia gordetzeko, oso astiro mugitzen dira eta, batzuetan, mugitu gabe egoten dira.



Kolibria da atzerantz hegan egin dezakeen hegazti bakarra. Aldaken diseinu berezi bati esker egiten dute hori.

Gepardoa da lurreko animaliarik azkarrena, 130 km/h-ko abiadura har dezake.





ZINEMALDIKO MISTERIOA

Bazen behin Eibarko eskola bateko gela bat Donostiara joan zela Zinemaldia gertutik ezagutzeko. Autobusez iritsi ziren hiriburura eta bertako geltokian bi ume galdu ziren. Beste guztiak Kursaalera joan ziren alfonbra gorria zapaltzera.



Bertara iritsi zirenean bertako jendeak komentatu zien bi aktore desagertu zirela alfonbra gorria eta guzti. Testigu batek zioenez, bi aktoreak alfonbra gorriaren barruan eraman zituzten.

Bitartean galdutako umeak hondartzara joan ziren bainu bat hartzera, eta bainatzen ari zirela marrazo bat agertu zitzaien. Ahalik eta azkarren bertan zegoen belaontzi batera igo ziren.

Lehortzen ari zirela alfonbra gorria ikusi zuten, hurbildu eta... Arraioa!! Bi aktoreak aurkitu zituzten. Askatu eta bahitzaileak uretara bota zituzten marrazoan janari izateko.

Ondoren portura iritsi ziren denak eta bertan esan zieten Santa Klara irlan aktore gehiago zeudela bahiturik. Umeek ordainsaria euren gelakideekin partekatu zuten eta gero gidoi bat idatzi zuten film bat grabatzeko beraien abenturekin. Munduko aldizkarietako azal guztietan agertu ziren.



ZU BAI MARGOLARI!

